


ENPRESARIEN KONFIANTZA


EAEko enpresen konfiantzak okerrera egin du aurtengo hasieran

Enpresarien konfiantza indize harmonizatua. Euskadi




INEk enpresarien konfiantza indizea, 2019ko lehen hiruhilekkoa, argitaratu du. Estatistika horren arabera, EAEko enpresak oraindik baikorrak dira, baina aurreko epealdietan baino apur bat gutxiago. Izan ere, aurtengo hasierari emandako balioa 132,2 da, azken bi urteko txikiena dena. Iritzi baikorragoak dituzte amaitu berri den hiruhilekoaz oraingoaz baino. Hain zuzen ere, 2018ko laugarren hiruhilekoari, epealdi hori amaitutakoan, emandako balioa positiboa da eta hirugarren hiruhilekoan eman zutenaren antzekoa. Hala ere, 2019ko lehen hiruhilekoari buruzko igurikimenak aurrekoak baino nabarmen okerragoak dira eta balio negatibo txikieta igaro dira, ia bi urtez baikortasun garbia erakutsi ondoren.

Amaitu berri den hiruhilekoaz duten iritzia




Hasi den hiruhilekoaz duten iritzia




Iturria: INE.

Enpresarien konfiantza indizea



Beste aldetik, Laboral kutxak osatzen duen indizeak enpresarien igurikimenean egonkortasuna erakusten du, azken bi urteko maila apalenean. Kasu horretan, gehiago dira inkestan galdetzen diren alderdiak hobetuko direla uste duten enpresak okertuko direla pentsatzen dutenak baino. Berezi azpimarragarria da fakturazioaz eta enpleguaz emandako erantzunetatik eratortzen den saldo positiboa, zeren eta bi kasuetan hobetuko direla uste dutenak okertuko direla erantzun dutenak baino askoz gehiago direlako. Beste muturrean, errentagarritasunean eta prezioetan oreka ikusten da erantzunetan.

Enpresarien igurikimena. 2019ko I hiruhilekoa



Iturria: Laboral kutxa.